

Arriagaren obra munduko edozein bazterretara iritsiko da

1. Bizitza eta obra Joaquín Pérez de Arriaga musikariaren oinordeko baten testuak osatzen du gunearen lehen-biziko atal hau.

2. Katalogo saiakera Juan Crisostomo de Arriagak sortutako lanen katalogoa egiteko saiaketa da. Musika instrumentala, ahots-musika dramatiko, erlijiozko ahots-musika eta maila xumeko musika ataletan banatzen da.

3. Digitalizatutako partiturak Hamabost partitura daude, pdf formatuan. Gehienak Arriagak bere eskuz idatzitakoak dira, bat izan ezik.

4. Diskografia 1950. urtea baino lehenagoko grabaketak, L Pak eta CDak biltzen dira hemen.

5. Hautatutako bibliografia Monografikoak, tesiak, aldizkarietan eta interneten aterako artikulak eta hiztegi-tako sarrerak aurki daitezke.

6. Agenda Juan Crisostomo de Arriagaren jaiotzaren bigarren mendeurrena dela eta antolatutako ekitaldien xehetasunak.



Antton Zubikarai, Feli Sanz eta Jon Sanchez, atzo Bilbon egin zen prentsaurrekoan. Roberto Zarrabeitia

Musikari bilbotarrari buruzko webgunea eta biografia aurkeztu zituzten atzo Bilbon

Nagore Ferreira Zamalloa Bilbo

ORAIN DELA berrehun urte jaio zen Juan Crisostomo de Arriaga musikariaren urtea da, zalanza barrik, aurtengoa. Arriagaren omenezko ekimenen barruan, konpositorearen inguruko webgunea eta Ramon Rodamilansek idatzitako "En busca de Arriaga" biografiaren berrargitalpena aurkeztu zituzten atzo Bilboko udaletxean.

«Arriagaren irudiaren gainean, edo bere musikaren inguruan, interesa duen edonorengan oihartzun handia izango dute guneak eta biografiak», azaldu zuen atzoko prentsaurrekoan Bilboko Kultura zinegotzi Jon Sanchezek. Berarekin batera, Bidebarrietako Liburutegiko zuzendari Feli Sanz eta Antton Zubikarai musika kritikaria izan ziren.

Musikari bilbotarrari buruzko webgunea martxan dago jadanik, eta sei ataletan banatu dute: biografia, katalogoa, partiturak, diskografia, bibliografia hautatua eta mendeurrenaren agenda. Gunea hiru hizkuntzatan dago, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Eduki hauen guztiauen artean, balio bereziena duena partitura digitalizatuen bilduma ederra da. Hamabost partitura batu dituzte, ia denak eskuizkribuak, Juan Crisostomo de Arriagak berak idatzitakoak. Bakarra dago bera bizi zela argitaratua: "Trois quatuors: pour deux violons, alto et violoncelle", 1825. urtean Parisen.

Horrela, Arriagaren obraren zatirik handiena euskarri digitalean dago jada, %80 Feli Sanzek argitu zuenez. Lan eskerga honek xede bi ditu, bata kontserbazioa eta bestea hedapena. «Digitalizazioaren helburua -Bidebarrietako arduradunak adierazi zuenez- partiturak gordetzea da, baina teknologia berriei esker posible da bere lana interneten jartzea, munduko edozein lekutatik kontsultatua izan dadin».

Biografia osoena

Duela sei urte kaleratu zen Ramon Rodamilansek idatzitako "En busca de Arriaga" biografia. Ez ziren ale asko argitaratu, eta dagoeneko agortua zegoen. Bilboko Udalak berrargitaratu egin du liburua, Antton Zubikarai musika kritikariaren hitzaurrearekin.

Atal nagusi bi ditu biografiak, Arriagaren bizitzaren sasoi biak bereizten dituena: Bilbo, 1806tik 1821era; eta, Paris, 1821etik 1826ra. Antton Zubikaraiaren ustez, orain arte idatzi den lanik «osoena» da hau. «Ez ditu bakarrik bere bizitzako garaiak azaltzen, berataz argitaratu den guztia ere aztertu zuen egileak». Liburuaren argitalpen berria «oso garrantzitsua» dela azpimarratu zuen Zubikarai.

Arriagaren urtea hasi besterik ez da egin. Datorren hilabetean, esaterako, zortzi bat kontzertu eskainiko ditutze.